

BILBAO / Udal Liburutegi Sareak jarduera bereziak antolatu ditu, Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta

Bidebarrietako, Begoñako, Deustuko, San Adriango, Zurbaranbarriko, San Inazioko eta Zorrotzako liburutegiek, helduei zuzendutako hitzaldiak eta umeei zuzendutako tailerrak, ipuin-kontalariak eta txotxongiloak jasoko dituzte APIRILAREN 21ean eta 23an.

Bilbon, 2012ko apirilaren 19an. Bilboko Liburutegi Sariak zenbait jarduera berezi antolatu ditu, Umeentzako eta Gazteentzako Liburuaren Eguna eta Liburuaren Nazioarteko Eguna direla eta. Larunbat honetarako, APIRILAREN 21erako eta datorren astelehenerako, APIRILAREN 23rako, programatu diren jardueren artean ipuin-kontalariak, tailerrak eta txotxongiloak daude, eta baita helduei zuzendutako hitzaldiak ere.

Programazioa datorren LARUNBATEAN, apirilaren 21ean, jarriko da martxan, Deustuko Liburutegian emango den hitzaldiarekin. Josune Muñozek, literatur kritikari eta Skolastika taldeko kideak, helduei zuzendutako literatur ohiturei buruzko "Ba al dakizu zer irakurtzen duzun?: Literatur ohiturak" hitzaldia eskainiko du. Egun horretan bertan, Begoñako liburutegiak umeei zuzendutako tailerrak jasoko ditu (euskaraz eta gaztelaniaz), eguerdiko 12:00etatik aurrera.

Programatutako jarduera gehienak astelehenean, APIRILAREN 23an izango dira. Horrela, Bidebarrietako liburutegiak liburu digitalari buruzko hitzaldi-solasaldia jasoko du. Kepa Torrealdaik, Bizkaiko Liburu Saltzaileen Elkarteko Buruak, Julen Arrizabalagak, e-Guneako arduradunak eta Fernando Morillo idazleak hartuko dute parte.

Astelehenean bertan, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, umeei zuzendutako zenbait jardura egongo dira Zurbaranbarriko, San Inazioko, Zorrotzako eta Deustuko liburutegietan, ipuinak ingelesez kontatuko dituen ipuin-kontalaria, "Bibliotecaria en apuros" txotxongilo ikuskizuna, tailerrak edo Sun magoaren "Magic Hands" ikuskizuna, hurrenez hurren. Magia ikuskizunaren amaieran, Deustuko liburutegiak, Udal Liburutegi Sareak antolatutako ingelesezko liburuen aipamenei buruzko umeentzako lehiaketaren sariak banatzeko ekitaldia jasoko du.

ERANSKINA: AGENDA

APIRILAK 21

DEUSTUKO LIBURUTEGIA

Hitzaldia / (Helduentzat)

ORDUA: 12:00

"Ba al dakizu zer irakurtzen duzun?: Literatur ohiturak"

Hizlaria: Josune Muñoz.

Literatur kritikan espezialista. Skolastika taldeko kidea

BEGOÑAKO LIBURUTEGIA

TAILERRAK: (Umeentzat)

"Egin zeure liburua: Harratxo Itsusia"

ORDUA: 12:00

HIZKUNTZA: ele bitan: euskaraz eta gaztelaniaz

APIRILAK 23

Liburu Saltzaileen Elkarteko Burua.

Julen Arrizabalaga

e-Guneako kudeatzailea.

Fernando Morillo

Idazlea.

SAN ADRIANGO LIBURUTEGIA

Hitzaldia (Helduentzat)

ORDUA: 18:00

"Irakurtzea plazera da: liburuen eta irakurleen arteko hitzarmena"

Hizlaria: Josune Muñoz.

Literatur kritikan espezialista. Skolastika taldeko kidea

ZURBARANBARRIKO LIBURUTEGIA

IPUIN KONTAKETAK: (Umeentzat)

"STIC MAN"

ORDUA: 18:00

HIZKUNTZA: ele bitan: ingelesez eta gaztelaniaz

SAN INAZIOKO LIBURUTEGIA

"BIBLIOTECARIA EN APUROS".

Gus Txotxongilo Taldea. (Umeentzat)

ORDUA: 18:00

HIZKUNTZA: gaztelaniaz

DEUSTUKO LIBURUTEGIA

Magia ikuskizuna eta "Ingelesezko Liburuen Aipamenei bufuzko Lehiaketaren" sari banaketa ekitaldia (Review Competition)

"Magic Hands" Sun magoa. (Umeentzat)

ORDUA: 18:00 //

HIZKUNTZA: ingelesez

ZORROTZAKO LIBURUTEGIA

TAILERRAK: (Umeentzat)

"Egin zeure liburua: Harratxo Itsusia"

ORDUA: 18:00

HIZKUNTZA: ele bitan: euskaraz eta gaztelaniaz